

HERNANI kronika

2004 urtea
Otsailak 20
Ostirala
Alea: 1024
www.kronika.net



Aurrera elkartea iaz ateraz zuen Konpartsak, Elcano kalean gora. Arabiarrez mozarrotu ziren.

Aurrera: "Gure helburua da ezinduek herriko ekintzetan parte hartzea eta integratzea"

■ Aurrera elkartea ezindu psikikoekin egiten du lan eta 16 urte daramazki zeregin horretan ■ Pozik hartuko dute gaurko omenaldia, orain arteko lanaren errekonozimendu gisa ulertu dute saria.

GAUR hasiko dira Hernaniako inauteriak. Aurtengo festetan Aurrera elkartea omentuko da, herrian eta inauterietan egindako lanagatik. Plazan bertan egingo zaie omenaldiko lehen ekitaldia eta Udaletxean gero.

Aurrera taldea 1988an sortu zen ezinduekin lan eginoko. Hasiera batean lan talde gehiago zituen, baina gaur egun ezindu psikikoentzako denbora libreko taldea da Aurrera. Guztira 18 kide eta 7 monitore daude eta urte guztian egiten dituzte ekintzak: hamabostero ekintza bat eginen dute larunbat arratsaldean; urtean zehar egun osoko 3 irteera egiten dituzte Igeldora, Iparraldera, Bizkaira eta abar eta 4 eguneko Udalekuak ere egiten dituzte uztail inguruan, Santanderrera, Goizuetara, Lekunberri...

Bederatzi urte Inauterietan Urteko ekintza garrantzitsue-

tako bat Inauterietako Konpartsakoa izaten da. Bederatzi urte dira Aurrera elkartea inauterietan ateratzen dela, pira-taz, arabez... eta aurten pailazoz. Gabonak pasa ezkerro hasten dira Karroza preparatzen eta ez dute nolanahiko lana egiten. Eta ardura guztia gurasoek hartzen dute. Inauterietakoaz gain herriko ekitaldi askotan hartzen dute parte: Mendiriz Mendirekin, elkarteekin, Elizako koru-

arekin, Parrokiko taldekin eta beste hainbat talderekkin. Ekintza hauen helburu nagusia da ezindu psikikoek herriko ekintzetan parte hartzea eta integrazioa bilatzea eta baita gurasoei laguntza bat ematea ere. Alde horretatik herriean errekonozimendu eta babes haundia dutela diote Aurrerako kideek eta omenaldi hau ere gustora hartuko dute beren lanaren errekonozimendu gisa.



Aurrera elkarteko hiru monitore.

Monitoreak behar

Aurrera elkartean borondatetako lana egiten dute monitorea eta gaur egun 7 arri dira lan horretan. Garai batean 12-13 ere izan ziren eta astebururo antolatzen zitzuten ekintzak, eta orain gutxiago izanda bi astek behin egiten dituzte. Monitorez justu xamar dabiltzala eta laguntza eskatu dute: interesatuak ostegunean azaldu Biterira, arratsaldeko 19:30etan. □

GAURKO EGITARAU

15:30etan, festen hasiera ofiziala Gudarien plazan eta omenaldia Aurrerari.

Segidan, ikastetxeetako umeak aterako dira Urumeko Txarangarekin.

16:30etan, Kriskitiña dan-tza taldearen erraldoi eta buruhaundiak.

17:00etan, Enetz taldea Plaza Berrian.

■ PELOTA

Hernani -Bergara gaur Berria txapelketan

HERNANIKO pelotariekin Bergarakoen kontra neurtuko dituzte gaur indarrak Berria txapelketako kanporaketan. Binakako txapelketa da eta kadete, jubenil eta afizionatuek partiduetan tanto gehien ateratzen dituenak egingo du aurrera (nahiz bi partidu galdu). Kadete- etan, Paul Ojuel eta Izadi Grajalek jokatuko dute, Ojueli bizkarreko mina berritzen ez bazaio behintzat. Jubiletan, Xabier Erdizio eta Aitor Gorrotxategi arituko dira. Nagusietan, Oier Mendizabal atzelaria da oraingoz segurua, eta aurrean Unai Alvarez edo Jon Zabala izango du. Printzipioz, Hernani aterako da faborito, batez ere kadete eta jubiletan. Nagusietan, Muguruza-Gutierrez bergararrak Euskal Herriko txapeldunorde dira eta gauzak estu egongo dira. Bergarako taldean, kadeteetan Aldai-Osak arituko dira eta jubiletan, Salegi-Altuna. Jaialdia gaueko 22:00eta hasiko da, kirodegiko frontoian.

Bestalde, Hernaniko beste hiru pelotarik ere partidu garrantzitsuak dituzte gaur gauean Bizkaian: Sopelak, Beñat Aizpitartek Euskal Herriko finalean sartzeko aukera du, partidua irabazi edo orain duen bost tantoko aldeari eusten badio. Paleta Goman, Goiatz Manzisidor eta Amaia Martinezek Euskal Herriko semifinaltara sartzeko aukera dute gaurko partidua irabazita. □

Jose Mari Etxeberria

zenari oroigarria jarriko diote bihar Abailarrin

JOSE Mari Etxeberria errefuxiatuaren heriotzaren 20garren urteurrena bete zen iaz eta urrian jakin arazi zuten bere aldeko oroigarri bat jarriko zela. Oroigarri hori bihar jarriko dute Abailarri azpian. Hara joateko 10:00etan dago zita Atsegineginean eta 10:30etan Besabin. Antolatzaileek ekitaldira joateko deialdia egin dute. □

tolare sagardotegia
Egunero irekita

OTSUA-ENEA
Osiñaga auzoa - Tel. 943 55 68 94 - HERNANI

MINER JANARIENDA
Denda ixten dugu.
Likidazioak otsailaren 20tik aurrera.

Hainbat tresna salgai:
- Mural frigorifiko (motorra kanpoan dijona)
- Arkoi Konjeladore bat
- Kortadore
- 2 pixu (1000 PLU memoriarekin)
- Zintzilikatzen den pixua
- Estanteriak egurra, isplua eta argiarekin eta normala argiarekin

INFORMAZIO GEHIAGO
943 55 01 36 - 699 82 91 98

BASERRIKO SAGARDOA
✓ Ostegunetik igandera irekita
✓ Asteburuan eguerdietaen zabalik

GOIKO LASTOLA SAGARDOTEGIA
Sagardogintza mantendu duten baserritarren omenez.

EREÑOZU AUZOA
TEL: 943 553272
HERNANI

■ WATERPOLOA



Mutilen A eta B taldeak kirodegian. Batzuk igoera fasea jokatuko dute eta besteek behekoa.

Hernani Ak igoerako faserako klasifikatu da taldeko lehenengo eginda

■ Igotzeko aukera haundiak ditu mutilen lehen taldeak, sailkapen faseko puntuak kontuan hartzen baitira ■ Larunbatean, Hernani Ak Leioaren kontra du, kanpoan.

WATERPOLOKO mutilen lehenengo taldea igoera fasea jokatzeko klasifikatu da eta aukera haundiak ditu datorren denboraldian Euskal Herriko lehen mailan jokatzeko. Orain bi urte ere mailaz igotzea lortu zuen Hernanik, baina, kategoria berrian lanak izan zituen eta iaz bigarren mailara jaitsi zen berriz ere. Aurten kaltitateaz gain beteranía haundiagoa ere badute Hernaniko jokalariek, eta sailkapen fasean onenak izan direla ikusita igotzeko talde faboritoetan dago Hernani.

Sei talde igoera jokatzen
Askartza, Maristas, Menditxo, Leioa, Osasuna eta Hernani

dira lehen mailara igotzeko fasea jokatuko dutenak. Talde hauetako batzuk, ordea, goiko mailan beste talde bat badute eta horiek ezingo dira mailaz igo. Hori kontuan izanda, Menditxo eta Maristas izango dira Hernaniren kontrario haundienak. Sei taldeek ligila bat jokatuko dute eta lehenengoa zuzenean igoko da eta hurrengo biek promozioa jokatuko dute.

Mutilen bigarren taldea bosgarren gelditu da eta behean gelditu direnen arteko ligaxka jokatu beharko du. Ez da jeitsierarik jokatzen maila honetan eta ligilak ez du eragin haundiegirik izango, baina, partiduak jokatzeak mese-

de egingo die Kopari begira. Astebururako zuten partidua atzeratu egin da.

Nesken taldea ligan
Nesken liga ez da hasi zaharra eta oraindik 4 partidu jokatu dituzte. Lehengo asteburuan berdindu egin zuten Leioan eta jokoan ari dira hobera egiten. Helburua lehen hiruretan sartzea izango du Hernanik.

Gipuzkoa txapeldun
Atzo arratsaldean Unibertsitate torneoko finala jokatu zen Hernanin Gipuzkoa eta Bizkaia artean. Gipuzkoako taldean ia denak hernaniarra dira eta 17-5 irabazi zioten bizkaitarrei. □

ESKOLA KIROLA

ASTEBURUKO PARTIDUAK

Boleibola	W a t e r p o l o	T a l d e a k	N o n	N o i z
Infantilak	Langile-Lizeo tanak	Kio Regia	B har1100	
Kadeteak	Fortuna-Jm aculada	Donostia	B har	
Jubenilak	LizaldiLangile	Donostia	B har	
Pelota				
Alebin m utilak	Langile D-Elezto A	Kio Regia	B har16 15	
Alebin m utilak	Txirria-Langile A	Kio Regia	B har16 15	

SAGARDOTEGIA
iPARRAGIRRE

HERNANIKO
SAGARDOA

TEL. 943 55 03 28

OSIÑAGA AUZOA
HERNANI

Asteazkenetik larunbatera irekitá, gaez. Larunbat eguerdiz ere bai.

Jatetxea
Venta Berri
Arano - Nafarroa
(948) 51 40 18
Larunbatetan itxia

Pedro Kanoren kontrako epaiketa hilaren 25era atzeratu dute

■ Pedro Kanorekin batera epaitzen ari dituztenen eskariaz eterri da atzeratzea.

PEDRO Kano Pittu hernaniarren kontrako epaiketa hilaren 25era atzeratu epaileak akusatuetako batzuen defen-

tsak hala eskatuta. Askatasunak deituta, kontzentrazioa egin zen asteazkenean Gudarien plaza epaiketa salatzeko. □

Jubilatu Etxeak asanblea gaur

GOIZ EGUZKI Jubilatu Etxeak urteko batzar orokorra egingo du gaur arratsaldean. 2003 ekintzen berri eman 2004rako proiektu eta asmoak ere azalduko dituzte. Jubilatu

Etxeko zuzendaritzako kideak ez ezik, Ongintzako ordezkarriak ere bilduko dira gaur.

Urteko batzarrerako dealdiak 15:30etan eta 16:00etan diren azalduko dituzte. Jubilatu

■ BOLA - ERREGULARITATE TXAPELKETA

Belaunzaran aurrena Urnietan eta Ibon Miner onena herrikoetan

JOAN den asteburuan Urnietan izan zen Bolako erregularitateko tiraldia. Eguneko onena Joxe Angel Belaunzaran urnietarra izan zen, 48 brila botata. Belaunzaranek ez zituen aparte hernaniarrak ere. Ibon Minerrek 47 brila bota zituen eta bosgarren gelditu zen. Migel Arrozpidek eta Joxe Ugalde 46na bota zituzten eta 10 eta 11garren postuetan gelditu ziren.

Igandeko tiraldia eta gero, Erregularitateko klasifikazioan Nikolas Osaba altzatarrak dijoi aurrena 183 brilekin. Hernaniarretan, berriz, Antonio Miner dijoi ondoena, 6-garren postuan eta 177 brilekin. Migel Burugain 9garren dijoi 176ekin eta Migel Arrozpide 11garren 175ekin.

Igande honetan, Legazpiko Mauleonen izango da tiraldia. □

■ HITZ BITAN

✓ ELIZATXO ELKARTEA

Matilderi omenaldi afaria gaur. Elizatxo elkartean 25 urtetan garbiketa lanak egin dituen Matilde jubilatu egiten da eta gaur dute elkartean omenaldi afaria. Elkarrean Tenerifera bidaia bat oparituko dio Matilderi senarrarekin batera joateko eta gaur dizkiote ematekoak bidaia txartelak.

✓ ARRANTZA

Federazioko baimenak Txantxangorrin. Txantxangorrik adierazi du Arrantza Federazioko baimena egiteko asmoa dutenek elkartera jotzeko ostiraletan, 20:00etatik 21:00etara.

✓ UDAL LIBURUTEGIA

Ipuiak kontatzeko ikasteko epea zabalik. Udalak Ipuiak kontatzen ikasteko tailerra antolatu du Jaurlaritzaren laguntzaz, eta izena emateko epea zabalik dago. Ipui tailerra otsailaren 26, 27 eta 28an izango da, ostegunetik ostiralera. Izena ematea hilaren 25 arte da, Udal Liburutegian. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udalzaingoa: 943 333288
- DYK: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalaria anônimoak: 943 331103

- ☎ FARMAZIAK
- Egunez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793
- Gaez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebral, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Hernaniko estetika zentru batean arratsaldez lan egiteko neska bat behar dugu. Deitu: 619 32 35 26 - 943 55 15 44

Sagastialden 50m2ko pisua salgai. Kapokaldera, 2 gela, sukaldea, komona, jangalsala. Agentziek ez deitu. Tel: 630 78 24 62

Pertsona euskalduna behar dugu etxeko lanak egin eta 2 ume zaintzeko. Goizeko 7:00etatik 14:00etara. Tel: 606 33 85 45

Etxea salgai Latxunbeberri. Ezin hobeto. 105 m2 erabilgarri + terraza 30 m + jardina 60 m + trasteroa 12 m2. 55.500.000 pta. Garaje itxia 3.300.000 pta. Tel: 651 70 88 84